

Herri Urrats, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako ikastolen bestak edizio berri bat ospatuko du ohi bezala Senpereko aintziran maiatzaren bigarren igandean. Aurten, iaz bezala, bestaren irabaziak Xalbador kolegioaren berrikuntza proiektura joanen dira.

Hogeita abar urte... berrikuntzez betea!

Aurten, Herri Urratssek 30 urte betetzen ditu, eta berrikuntzez betea dator.

1.-Alde batetik, aurtengo edizioan **edralontzi berrerabilgarriak** izanen ditugu bestan lehenengo aldiz. Ikastolen elkarteak deja hegoaldeko festetan erabiltzen dituen edalontziak izanen dira Herri Urratsen ere. Aldiz, lehendabiziko aldia denez, bakarrik bi guneeetan erabiliko dira osoki: Gipuzkoan eta Lapurdin.



Edalontziak kontsignatuak dira euro baten truke, eta diru hau berreskuratzen ahalko da besta bukaeran. Hala ere, basoa itzuli eta euro hori Xalbadorri eskaintzen ahal da!



2.-Beste urteetan Herri Urrats eta Bizi Garbia elkargoaren arteko lankidetzan aurten berritzen bada ere, edizio honetan zaborren bilketa selektiboan indar berezia bat egingen da. Herri Urratsen ostatueta urte guziz bezala **birziklatze sistema** abian emanen du, baina dei berezia egin nahi da aurten festaz gozaten duen publikoak indar berezi bat egin dezan ere. Horretarako, aintzira osoan izanen diren zakarrontziak behar den bezala erabiltzea eskatzen da. Sagardo botilen kontsigna iaz bikain funtzionatu zuenez gero, aurten ere sistema berdina erabiliko da, erran nahi baita, sagardo kontsigna (kaskoa) itzultzen duenari txartel bat eskainiko zaio. Hala ere, Kanboko kolegioaren aldeko keinu bat egin nahi bada, botila hutsak ostatueta uzten ahal dira konpentsaziorik gabe; Xalbadorrek eskertuko du!

3.-Beste berrikuntza bat higienean dugu. Ez da erraza horrenbeste jende biltzen duen besta batean **komunen baldintza higienikoak** mantentzea, baina aurten Herri Urratsek indar berezi bat egiten du zentzu horretan. Urtero ezartzen diren kabina indibidualez gain, bost komuna handi instalatuko dira aintziraren inguruan. Eta hauen higiene baldintzak mantentzeko, garbiketa talde bat egun osoan zehar komunak arazteaz arduratuko da.

4.-Ipar Euskal Herrian berritasuna bilakatu den desmartxa bat Herri Urratsen atzeman ahalko dugu ere: **Euskoa, euskal moneta berria**. Euskoa bere bidea egiten ari da azken hilabeteotan eta normala denez ikastolen bestan ere urratsak egiten ditu. Aurtengo lehena, jantzien salmenta standetan emanen da, hor erabilgarria izanen baita Euskoa.



5.-Azken urteotan, Haurren Txokoak izandako arrakasta, bumeran baten gisan, gune horren aurka itzuli da. Izan ere, bertan eskaini ohi diren aktibitateak horrenbeste ume erakartzen ditu, azkenean gunea saturatuta bukatzen duela. Horregatik, duela zenbait urte Lapurdi gunean haurrentzako aktibitate berriak eskaini ziren. Hauen oihartzun ona ikusita, beste urrats bat ematea erabaki da eta aurten **beste Haurren Txoko handi bat** antolatuko da. Gune berri hau Gipuzkoan pentsatua da, orain arte dantza emanaldiak egiten ziren tokian. Orain, besteak beste, Irrien Lagunen ikuskizunak izanen dira ikusgai bertan.

6.-Eta dantza beraz? Nora doa? Gezurra badirudi ere, aintzira hertsiki horretan bazen sekula erabilia ez zen espazioa: hondartza. Beraz bertan irudikatu da gune berri bat, biziki aproposa den izen batekin: **hordantza gunea**. Dantza emanaldietarako leku berri hau Zuberoa gunean kokatua da, uharte ttipiaren parean; eszenatoki paregabea zinez gorputzen mugimenduen bilakaeraz gozatzeko.

Egitaraua

Kontzertuak eta taldeak

NAFARROA	LAPURDI	ARABA
2zio (EH)	Bertsu saioa	HU kantuz
Familha Arthus (Gaskoina)	Agustin Alkat (EH)	Mutxiko
Hurmurao (EH)	Amaren Alabak (EH)	The Sparteens (EH)
Anai Arrebak (EH)	Rhapsoldya (Bretainia)	Xutik (EH)
Talco (Sardinia)	Etoumba (EH)	Niko Etxart eta Hapa Hapa (EH)

Dantza emanaldiak

Aurtengo 30. urteurrena era berezian ospatzeko, zazpi probintzietako dantza taldeak gonbidatzea erabaki du Herri Urratseko antolakuntzak. Lapurdiko *Arbonarrak*, Baxe Nafarroako *Garaztarrak*, Zuberoako *Kautere Balet*, Gipuzkoako *Kemen*, Nafarroako *Ortzadar*, Bizkaiko *Andramari* eta Arabako *Algara* dantza taldeek onartu dute gonbidapena. Dantza tradizionalak eta sorkuntzak ekarriko dituzte aintziraren hertzean estreinatuko den gune berrira.

Haurren Txokoa

Arestian aipatu bezala, aurten Haurren Txokoa hiru gunetan zabalduko da. Egitarauan, ikuskizunak, ludotekak, erakustaldiak... haur eta heldu ongi pasatzeko egitaraua osatu da 30. edizio honetan. Esku-orrian xehetasun guztiak atzematen ahal dira.

Autobusak

Urtero bezala, Herri Urratsek autobusak antolatzen ditu Ipar Euskal Herriko eskualde nagusietatik Senperera garraioa bermatzeko. Orotara, hamabi linea proposatzen dira, 41 autobusez segurtatukoak. Aurten prezio emendatu da eta txartel bakoitza 5 eurotan salduko da ohiko puntuetan. Irteera eta itzulera tenoreak usaiakoak ere:

Irteera	bus	Tenorea	Nondik	Itzulera	Saltokiak
Baiona	6	8:30	San Andres plaza	20:00	Elkar
Hazparne	4	8:30	Merkatu estalia	20:00	Xuriatea
Hendaia	4	8:30	Beltzenia	20:00	Xaia
Don. Lohizune	1	8:30	Autobus geltokia	20:00	Xaia
Ahurti	3	8:30	Suhiltzaileen gunea	20:00	Lehuntzeko Bar du port
Mugerre	2	8:30	Lavignasse garajea	20:00	Fruits&Cie / Eraiki
Uztaritze	1	9:00	Bilgunea	20:00	Tiirritta
Maule	4	8:00	Geltokia	18:30	Herriko Ekoizpentegia
Garazi	5	8:00	Merkatua	20:00	Xilintxa ostatua
Baigorri	3	8:00	Kirol zelaia	20:00	Oronos
Donpaule	5	8:30	Eliza	20:00	Hiruak bat
Heleta	3	8:45	Eliza	20:00	Trans. Elizagarai

Ahurtitik irtengo diren autobusak Lehuntzen (bar du Port) eta Urketan (herriko etxea) geldituko dira.

Mugerretik irtengo den autobusak Hiriburun (Carrefour Market) geldituko dira.

Heletako linea Hirisarritik irteten da(8:45) eta Iholdi (8:55), Armendaritze (9:00), Heleta (9:15) eta Luhusotik (9:25) pasako da.

Mauleko autobusak Muskuldi eta Lartzabaletik pasako dira.